



Sarrera (prestazioaren deskribapena)

Garesko Udalak laguntza ekonomikoa ematea aurreikusi du COVID 19ren krisiak nabarmen kaltetu dituen eta gaur egungo egoera ekonomikoa konprometitu duten familiei laguntzeko; aldi berean, herriko merkataritza-sarea babestu nahi da. Horretarako, partida zabalgarri bat prestatu da, eta ikusitako beharren arabera handitu ahal izango da.

Hurrengo testuan aipatzen den prestazioa salbuespenezkoa da, finalista, esleipenezkoa, eta bateragarria beste diru-laguntzak kobratzearekin.

Hartzaileak:

Garesen erroldatutako familia-unitateak (eskaera egin baino sei hilabete lehenagotik gutxienez), baldin eta egiaztatzen badute 2020ko apirilko diru-sarreretan %50eko baliabide ekonomikoen galera izan dutela, 2020ko otsailarekin alderatuta, eta prestazio hau eskatzeko unean diru-sarrera handiagorik ez badute.

Diru-sarreraren muga familia-unitateko.

Familia-unitateetan:

Pertsona bat: (1,5 IPREM) (806,76 € garbi hilean)

2 bi pertsona: %35 gehiago (1.089,12 € garbi hilean)

3 pertsona edo gehiago: %25 gehiago (1.361,40 € garbi hilean)

Ondorioz, prestazio hori jasotzeko aukera dutenek zenbateko hau jasoko dute:

Familia-unitate hauetarako:

Pertsona 1 familia-unitatean: 100 €

2 pertsona: +% 35 gehigarria = 135 €

3 pertsona: % 25 gehigarria: 168,75 €

4 pertsona edo gehiago: %15 gehigarria: 194,06 €

Dokumentazioa aurkeztea

Familia-unitateak bere egoeraren berri aurkeztu beharko du telematikoki, Ilzarbebarreko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean (ssbpuente@gmail.com), honako dokumentu hauen bidez.

- Prestazioaren eskaera: Garesko Udalaren webgunean deskargatu beharreko dokumentua.
- Erroldatuta dagoela egiaztatzeko (gutxienez sei hilabete): ofizioz egiaztatuko da eskaera aurkeztean.
- Familia-unitate osoaren diru-sarreraren justifikazioa, agiri hauen bidez:
 - o Legezko langabezia-egoeran dauden pertsonen kasuan, prestazioen erakunde kudeatzaileak emandako ziurtagiria. Ziurtagiri horretan, prestazio edo sorospengisa jasotako hileko zenbatekoa adieraziko da, baldin eta ezin bada lortu zenbateko hori jasotzen duen zinpeko aitortpena.
 - o Besteren konturako langileen kasuan, otsaileko, martxoko eta apirileko nominak.
 - o Norberaren konturako langileen kasuan, otsaileko, martxoko eta apirileko diru-sarreraren eta gastuen balantzea.
- Familia-unitatearen aurrezkiak urteko IPREMen %65a (4.195 €) gainditzen ez duten zinpeko aitortpena.
- Kontu zenbakia: diru-laguntzaren zenbatekoa ordaintzeko.

Gastuaren justifikazioa:

Jasotako prestazioaren gastua egin ondoren, egiaztatzea (tiketa) aurkeztu beharko da, zenbateko horren %50a gutxienez, Garesko dendetan egin dela egiaztatzeko.

Epeak:

Garesko Udalak onartutako zenbatekoa ordaindu dela jakinaraziko dio interesatuari, eskaera egin denetik 5 egunera gehienez.

Eskaerak aurkezteko azken eguna: 2020ko maiatzaren 22a

Prestazioaren indarraldia:

2020ko maiatzaren 29ra arte.

